



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe Artazako birbilgunea barritzea eta Bizkaimoveren bitartez bideen egoereaz neguan emoten dan informazioa hobatzea

Bilbon, 2013ko otsailaren 15ean

Azken bilerea egin zanetik aste betera barriro batuko da Bilbon Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea, Bizkaiko errepideakaz lotutako zenbait gai aztertzeko. Bizkaiko Talde Popularraren bi ekimenek Bizkaiko Ganbarako gainerako talde guztien aldeko eritxia jaso dabe. Lehenengo ekimenean, Foru Aldundiari Artazako biribilgunea (Getxo) barriztetako eskaria egin jako, holan Uribe-Kostako igarobidera doan bideak ahalmen handiagoa izan daian. Bigarren ekimenean, Foru Aldundiak “Bizkaimove” atariaren bitartez errepideei buruz emoten dauen informazioa hobetzea eskatu da, gure Lurraldeko mendateei buruz emoten dan neguko informazioa batez be.

Lehenengo Arauz Besteko Proposamenean, Talde Popularrak Batzordean dauen bozeroaleak, Jesús Iasik, gainerako talde guztien aldeko eretxia jaso dau. Bertan Herri Lanetako Sailari, “Artazako biribilguneako trafikoen banaketea Getxorako noranzkoan barriro atondu dagiala” eskatzen jako, Uribe-Kostako igarobiderantz doazan ibilgailuentzat beste errail bat egin ahal izateko. PP-k, 2011ko Edukieren Liburuan jasota, emondako kopuruak kontuan izanda, aurtan, La Avanzadatik 99.000 ibilgailu heltzen dira biribilgune horretara, eta horreetatik 72.000 Uribe-Kostarantz doaz, errail bakarretik.

Euzko Abertzaleak taldeak popularren proposamenaren alde egin dau, baina esan dau konponbidea ez dala trazatua “barriro marraztea bezain erraza”. Behin betiko konponbidea “sarbideen berrantolaketatik” etorriko da, eta Foru Aldundia horretan beharrean dabil, Getxoko Udalagaz batera, Nerea Ahedok, Euzko Abertzaleak taldeak batzordean dauen bozeroaleak adierazo dauenez. Erakunde biak lantzen ari diran proposamenaren bitartez errail bat gehituko jako Uribe-kostarantz doan errepideari, eta holan “segurtasun, ahalmen eta arintasun handiagoa” lortuko da trafikoa.

Socialistas Vascos taldea popularren proposamenaren alde agertu da, “erraza” dala esanez, eta harridurea azaldu dau Foru Aldundiak “ofizioz” jardun ez izanagaitik, arazoa “aspaldikoa” dalako, Joaquín Colmeneroren berbetan. Bilduren eritxiz, PP taldeak planteau dauen soluzinoa “logikoa eta arrazoizkoa” da.

BIZKAIMOVE

Beste alde batetik, batzordeak, aho batez oraingoan be, Bizkaimovek, Lurraldeko trafikoa dagozan arazoei eta egoerari buruzko informazioa emoten dauen web guneak, emoten dauen informazioa hobetzea onartu dau. Hobekuntza eskaria “Neguko Bideragarritasuna” atalerako eskatu da, mendateen egoerari eta meteorologia informazioari buruzko datu gehiago sartzeko. Ekimena aurkeztu dauen talde popularrak EAJ-PNV-ren zuzenketa-eskeak onartu dauz. Zuzenketa-eske horretan adierazoten danez, hobekuntza hori egiteko estekak sartuko dira Eusko Jaurlaritzaren trafikoko (trafikoa.net) eta Euskalmeteko (euskalmet.euskadi.net) web guneetara, leku horreetan informazio hori emoten da-ta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

INTERBIAKEN FINANTZAKETA

Saioari hasiera emoteko, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako Foru Sailaren arduradunak, Bildu taldeak eskatuta, Interbiaken akzinoak harpidetzeko 2012ko azaroaren 20an hartutako erabagiari buruzko azalpenak emon dauz. Harpidetza horren aurrekontua, koalizino abertzalearen esanetan, 9 milioikoa zan, eta azkenean 37,9 milioi harpidetu dira. Horrez gain, soziedade horrek banketxeei eskatutako kredituei buruzko galdera be egin dau, eta “kreditu horreen amortizazioari, diru-sarreraren galeraren eraginari eta etorkizuneko zorpetzeen plangintzari” buruz be galdetu dau Bilduko bozeroaleak.

Garamendik gogoratu deutso Bilduri erakundearen finantzaketan egindako aldaketa horreek berak iragarri ebazala joan dan urtarrilaren 25ean egindako batzordean. Bertan, Foru Aldundiaren eta Interbiaken artean sinatutako hitzarmenaren bederatzigarren aldaketea aitatu zan. “Erantzuna ez da aldatu”, esan dau. Interbiaken kredituei buruz, diputatuak baieztatu dau Inbertsionen Banketxe Europarrak (BEI) emondako 622 milioi euroen eta bertako beste finantza erakunde batzuek emondako 330 milioi euroen amortizazio plana “be ez dala aldatu, bere egunean sinatu zanetik”. Etorkizuneko zorpetzeari buruz, “une honetan gainean dogun egoera ekonomiko gogorrak irauten dauen denporaren araberakoa izango dala” esan dau.

OINEZKOAK MIRAFLORESEKO BIDEZUBIAN

Beste “ahozko erantzun-eske” baten bitartez, Bildu Taldeko Taldeburuorde dan Aitor Torre jaunak argibideak eskatu deusaz Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreari Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzeari buruz eskatu zan azterlanaren “egoerea edo aurreikuspena” zein dan jakiteko. Eskari hori, joan dan urteko ekainaren 5ean onartutako Arauz Besteko Proposamenean oinarritzen da. Proposamen horretan, Aldundiari hilebete biko epean Mirafloreseko zubibidearen zatia oinezkoentzako egokitzeari buruzko azterlana aurkezteko eskatu jakon, indarrean dagoan legedian oinarrituta, modu horretara Miribilla eta Santutxu auzoen arteko mobikortasuna erraztu ahal izateko. Garamendik adierazo dauenez, azterlana “ondorioen fasean dago”, baina ez dau epe jakinik emon gura izan. Foru Aldundia eta Bilboko Udala “alkarlanean ari dira, gaur egungo egoerearen konponbidea zein dan ikusteko eta konponbide hori bideragarri dan jakiteko”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Unanimidad en la Cámara para pedir la reforma de la rotonda de Artaza y mejorar la información invernal a través de Bizkaimove

Bilbao, a 15 de febrero de 2013

Una semana después de su última cita, la Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales se reunía de nuevo en Bilbao para tratar diferentes asuntos relacionados con la red de carreteras de Bizkaia. Dos iniciativas del Grupo Popular Vizcaíno han contado esta mañana con el apoyo unánime del resto de grupos de la Cámara vizcaína para instar a la Diputación Foral a reformar la rotonda de Artaza (Getxo), con un aumento de la capacidad en dirección al corredor de Uribe-Kosta, y mejorar la información sobre las carreteras que el ente foral ofrece a través del portal “Bizkaimove”, en concreto en lo que atañe a la información invernal de los puertos del Territorio.

En su primera Proposición No de Norma, el portavoz del Grupo Popular en la comisión, Jesús Isasi, ha encontrado el respaldo del resto de formaciones para solicitar al departamento de Obras Públicas a “redibujar la isleta de reparto de tráfico en la rotonda de Artaza sentido Getxo” con el objetivo de habilitar un carril más para los vehículos que se dirigen al corredor de Uribe-Kosta. Según las cifras facilitadas por el PP, recogidas del Libro de Aforos de 2011, este año de los 99.000 vehículos que llegaban a esta rotonda por La Avanzada, 72.000 iban en dirección a este corredor por un solo carril.

El Grupo Nacionalistas Vascos ha apoyado la propuesta de los populares pero ha advertido de que la solución “no es tan simple” como “redibujar” el trazado. La solución “definitiva” debe llegar por una “reordenación de los accesos” algo en lo que está trabajando la Diputación en coordinación con el ayuntamiento de Getxo, según ha anunciado la portavoz nacionalista en la comisión, Nerea Ahedo. La propuesta en la que están participando ambas instituciones, servirá para sumar un nuevo carril al acceso hacia Uribe Kosta con lo que se logrará “mayor seguridad, capacidad y fluidez” en el tráfico.

El Grupo Socialistas Vascos ha apoyado la propuesta de los populares, calificándola de “sencilla”, y se ha extrañado de que la Diputación no haya actuado “de oficio”, porque el problema “viene de lejos”, según Joaquín Colmenero. Para Bildu la solución planteada por el PP es “lógica y razonable”.

BIZKAIMOVE

Por otro lado, la comisión ha aprobado también por unanimidad aumentar la información en Bizkaimove, la página web foral que informa sobre las incidencias y la situación del tráfico en el Territorio, en su apartado “Vialidad Invernal” para que se incorporen más datos sobre el estado de los puertos de montaña e información meteorológica. El grupo juntero popular, postulante de la iniciativa, ha aceptado las enmiendas del PNV para que esta mejora se lleve a cabo mediante la introducción de enlaces a las páginas webs de Tráfico (trafikoa.net) y de Euskalmet (euskalmet.euskadi.net) del Gobierno Vasco, en donde ya se ofrece dicha información.

FINANCIACIÓN DE INTERBIAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La sesión ha comenzado con las explicaciones de la titular del departamento foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, que a petición del grupo Bildu, debía informar a la cámara vizcaína de la suscripción de acciones de Interbiak aprobada el 20 de noviembre de 2012, por valor de 37,9 millones de euros, cuando estaban presupuestados 9 millones, según la coalición abertzale; y también sobre los préstamos solicitados por esta sociedad a diferentes entidades bancarias, así como la "amortización de estos créditos, la incidencia del déficit de ingresos, y la planificación de futuros endeudamientos".

Garamendi ha recordado a Bildu que estos cambios en el calendario de financiación de esta entidad, ya fueron anunciados por ella misma en una comisión celebrada el pasado 25 de enero, en donde daba cuenta de la modificación novena del convenio suscrito entre la Diputación e Interbiak. "La respuesta no ha variado", ha dicho. En cuanto a los créditos a Interbiak, la diputada ha confirmado que el plan de amortización de los 622 millones de euros concedidos por el Banco Europeo de Inversiones (BEI) y los 330 millones de las entidades financieras locales, "tampoco ha variado del que se firmó en su momento". En cuanto al futuro endeudamiento, "dependerá de cuánto dure la depresión de la actividad económica que estamos sufriendo ahora mismo", ha dicho.

PEATONES EN EL VIADUCTO DE MIRAFLORES

A través de otra "pregunta oral" dirigida a la responsable foral de carreteras de la Diputación, el portavoz suplente de Bildu, Aitor Torre, reclamaba información sobre el "estado o la previsión de entrega" del estudio sobre la adecuación del viaducto de Miraflores para el tránsito peatonal, en base a una Proposición No de Norma aprobada el 5 de junio del año pasado en donde se instaba al ejecutivo foral a presentar en el plazo de 2 meses un informe de movilidad para comunicar a pie, en base a la legislación vigente, los barrios de Miribilla y Santutxu a través de este puente. El estudio se encuentra en "fase de conclusiones", ha anunciado Garamendi, quien no ha querido dar un plazo determinado. La Diputación foral y el Ayuntamiento de Bilbao están trabajando de forma "coordinada para ver cuál puede ser la solución a la situación actual y si ésta es posible".